

Aretxabaleta,
1993ko abenduak 30

Aretxabaleta gazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Alkate barriarekin berbetan

• *Kargu
aldaketak*

• *Afizioak:
Blanka Perea*

• *Kirolak:
Ziklo-krosa*



Izena: Jon Iñaki
Abizena: Izarzelaija
Non jaio: Gasteiz
Non bizi: Arrasaten
Lanbidea: Beinkeko liberatua

- **Amestutako lanbidea?**
Loturarik gabeko baserritarra
- **Ze etxeko lan egiten duzu?**
Fregaua
- **Zure inguruan erretzailerik badago, zela ikusten duzu erretzearen arazoa?**
Gaitz jeneralizatu dela uste dut eta konponbidean jartzeko gaitza gainera
- **Ikusten duzu zeure burua erresidentzia batean?**
Egia esateko ez, baina tokatu ezker aurrera egingo nuke
- **Zer eskatu diozu Olentzerori?**
Denbora apur bat eta pentsatzeko aukera
- **Irla batera joan ezker ze hiru gauza eroango zenituzke?**
Lagunak, proiektu bat eta liburu batzuk
- **Ze iritzi daukazu bertsolari txapelketaren gainean eta zela ikusi duzu azken sailkapena?**
Nahiko arrakastatsua izan dela ikusi dut. Txapelketak orokorrean zer lurraldetan egiten diren eta zertarako kontutan eduki behar dugu. Sailkapenari dagokionez ondo ikusi dut, beharbada Sorozabalek atara zuen postua baino hobea atara behar zuen
- **Bizi bakarrik ala beste batekin?**
Beste batekin
- **Euskara batua ala etxekoa, zergatik?**
Biak, bakoitzak bere lekua duelako eta bakoitzari bere lekua egin behar zaiolako
- **Txakurak kalean, lotuta ala suelto?**

Kalean lotuta

- **Soldadutza bai ala ez?**
Ez, duda barik
- **Gabonetan gastetan den diru mordoskaren gainean zer daukazu esateko?**
Txarto iruditzen zait, uste dut desfiguraturata daudela Gabonak
- **Zure esku balego, zer egingo zenue Atxabal-tako plazan?**
Iraunkorki gauzak antolatu jendeak parte hartu dezan
- **Kirolak: zein praktikatu zein ikusi?**
Praktikatu pala eta ikusi pelota
- **Emakumeak ilegorriak, rubiak edo morenak?**
Beharbada rubiak, baina morenak ere bai
- **Pelotari bat, traineru bat, futbol talde bat, bertsolari bat**
Pelotaria Retegi, trainerua Orio, futbol taldea, ez zait gustetan futbola eta futbolaren kontra nago, bertsolaria Egaña
- **Oporrak non pasatu?**
Ez naiz oso exijentea baina joatekotan, ahal balitz, esplotatu gabeko lurralde batera.
- **Erropak bakarrik erosten dituzu ala laguntzarekin?**
Laguntzarekin
- **Zure birtute bat?**
Pazientzia
- **Akats bat?**
Desordena

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkartea, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxitila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelaija. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif, Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Ekologikoan egiten da.

Ze opari ekarri dizu Olentzerok?



**Itsasne Egaña
(Ikaslea)**

Panpin asko, jertse asko eta gero baloiak eta horrelako gauzak



**Maider Ezkorbe
(Ikaslea)**

Txamarra, kickers baltzak eta beste dena dirua



**Ander Fernandez
(Ikaslea)**

Joko bi eta kotxe bat



**Ibai Galindez
(Ikaslea)**

Kamiseta bat eta zapatila batzuk

KARTAK

Urtarrilaren 13ra arte

Denek oporrak hartzen dituztenez, guk ere Aretxagazetan Gabonetako oporrak hartuko ditugu.

Hurrengo zenbakia, urtarrilaren 6an kaleratu beharko litzateke, baina Errege eguna dela eta, urtarrilaren 13ra arte atzeratu dugu.

Beraz irakurleok badakizue, Aretxagazeta-

ren 44. zenbakia urtarrilaren 13an atarako da.

Aukera hau aprobetxatuz, karta honen bitartez, Aretxagazetako irakurle guztiei Zorionak eta Urte berri on opa dizkizuegu Aretxagazeta Elkarteke partaide guztiok.

Aretxagazeta


Komunikatu honen zergatia

Horrenbeste sartu da pertsona hori (Iñaki Pierrugues, PSE-EEko zinegotzia) H.B.rekin, azkenean gogoz kontra izan arren ere erantzutera behartuak izan gara.

Komunikatuan argi utzi genuen bezala, penagarria litzateke. Komunikatu honen bidez pertsona horrek bere

helburuak lortuko balitu. Zeren gure iritziz jarrera hauek hartzeko arrazoi bakarra bere "nagusiei" pelota egitea da.

Aretxabaletako Herri Batasuna.



Sari banaketa

Murruko Mendizale Elkartek, Udalaren laguntzaz, VII. Argazki Lehiaketa antolatu zuen. Sari banaketa abenduaren 20an izan zen eta sarituak honako hauek izan ziren: A atalean, gai librean, lehenengo saria Pedro Fernandezdako izan zen, bigarrena Daniel Yaniz bilbotarrarendako eta hirugarrena

Jesus Alonsorendako. B atalean, "Mendia bere hedapen osoan" izeneko atalean, lehenengo Joseba Egibar atxabaltarrarendako izan zen eta bigarrena Jesus R. Rollanendako.

Saritatuko argazkiak eta lehiaketan parte hartu dutenen argazkiak udaletxeko ganbaran ikusi ditzakezue.



Berri-zahar eguna giro onaz eta umoreaz ospatu zen. Jendea oso gustora geratu zen eta datorren urtean errepikatzeko asmoa dute



Atxabaltarrok Arrasate Telelista garbi ikusteko aukera dugu orain. Duela aste batzuk, Arrasate Telebista ondo ikusi zedin, Udalak Murun antena bat ipintzea onartu zuela aurreratu genizuen. Dagoeneko antena ipinita

dago, beraz aukeratzeko orduan katea berri bat daukagu, Arrasate Telebistak eskaintzen duena hain zuzen ere.

ATBk eguardian zein arratsaldean emititzen du. Egurdian 1'30etatik 3ak arte eta arratsaldean 8etatik 12ak arte.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
Diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

**SAGASTA
ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA

Kargu aldaketak

Joan zen astelehenean, abenduaren 20ko Gobernu Batzordean, alkate berririk Udaleko sail bakoitzeko antolaketa barriaren barri eman zuen.

Lehenengo alkate-ordea eta Ongizate saileko arduraduna Clemente Domingo izango da.

Bigarren alkate-ordea, eta Kultura eta hizkuntza saileko arduraduna Felis Beltran de Heredia izango da.

Eta azkenik hirugarren alkate-ordea, eta emplegu eta ekonomi saileko arduraduna, Miguel Angel Delgado izango da.



Gabonetako ekintzak

Orain arte, Udal Kultura Batzordeak antolatutako ekintzetan, jende ugari parte hartu duela esan dezakegu. Besteak beste, hurrek primeran pasatu zuten trenean, eta baita zinera etorri ziren pailazoenkin, P.I.N.ean...

Gabon Kulturalako ekintzen barruan, Murru-kixo eta Okila taldeek antolatutako erakusketa ere aipagarria izan da. Erakusketa ikusgarria izan da eta

jende asko erakarri duena.

Baina Gabonetako ekintzak ez dira oraindik bukatu, urtarrilaren 3an Bilboko P.I.Nera bidaia egongo da, Ortzadar taldeak antolatuta. Squash txapelketak ere aurrera jarraitzen du, baita badminton txapelketak ere. Mountain-bike irteerak urtarrilaren 5era arte iraungo dute eta Gabonak bukatu arte kiroldegiko igerilekuan uretako jokoak egongo dira.

Txirrindulari Zuzendari ikastaroa

Deba Garaiko Euskara eta Kirol Teknikariak Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoarekin batera Herrialdeko kirol zuzendari titulua lortu ahal izateko ikastaroa antolatuko dute, "kirola euskaraz" deitutako programaren barruan.

Ikastaroa urtarrilaren 15, 22, 29 eta otsailaren 12an izango da Bergarako Lanbide Hezkuntza Eskolan goiz eta arratsaldez. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake. Gainera hainbat arlo euskaraz emango dira eta ezaugarri horietako lehenengo ikastaroa da.

Ikastaroaren prezioa 10.000 pezetakoa da eta titulua lortzen dutenei 5.000 pzt. bueltatuko zaie. Izena emateko epea urtarrilaren 11n bukatuko da.

Informazio gehiago behar izan ezkerreko Udaleko Euskara Zerbitzuan eta kiroldegian galdetu ezazue.

Izena eman gura duena Aretxabaletako kiroldegira zuzendu dadila.

Lanean zebiltzan monotoreei zuzenduta zegoen ikastaroa eman zen abenduaren 27an eta 28an Arrasateko Musakolako Kiroldegian. Ikastaro horretan, besteak beste, anatomia eta kirol lesioak, jokoak, ... aztertu ziren.

• Joan zen abenduaren 21ean, martizean, Basotxo eta Erresidentzia parean dagoen arbola apaindu zuten Udaleko langileek. Baina zuhaitzak ez zuten luze iraun, biharamun goizean, zuhaitz parean, 56 bonbila inguru apurtuta agertu ziren lurrean.

• Eta bonbilen jarraituaz, aurten Udalak herriko sarrerak argiz apaindu ditu. Portasaleko argiek ezbehar bat izan zuten joan zen astean, kamioi batek argiak bota zituen eta. Dagoeneko konponduta daude, baina orain Errotabarri parean ipini dituzte. Argiak ipintzearen kostua 225.000 pezetakoa izan da

93 / 94eko datu eskolarrak

Bailarako Udalen biltartez eta ikastetxeek eskaintako datuei esker, 1993-1994 ikasturte honetako Deba Garaiko estadistika eskolarrak eman ditu jakitera Hezibide Elkarteak.

Lan horren ondorioak honeko hauek dira:

1.- Beherakada Demografikoa

1975etik aurrera, Haur Hezkuntza eta Lehen eta Bigarren Hezkuntza eman den beherakada demografikoa inportantea izan da. Bestalde, 2 urteko umeen eskolaritze portzentaia urterik urtera gorantz doala azpimarratu behar da.

2.- Euskalduntze Prozesua

Ikastetxeek daroaten euskalduntze prozesua ere garbi ikusten da. Lehenengo kurtsoetan, gaur egungo Haur Hezkuntza, aurreko urteetakoari jarraituz, gaztelazko A eredu guztiz desagertu da, B eredu gutxinaka-gutxinaka beheruntz doa D eredu

euskaldunaren mesederako. Fenomeno bera gertatzen da Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzan;

3.- Erreformaren Bilakaera

Batxilergo Orokorra egiten dutenen ikasle kopuruak bikoiztu egiten du Batxilergo Bateratu Balianitzeko 1 eta 2. maila egiten dabilzanen kopurua.

Ondorioz, Irakaskuntza Ertainetako 2. zikloan ere, 3 BBB eta UBI jaitziaz doaz, Goi Batxilergoa gehituaz doan neurrian.

Deba Garaian maila unibertsitariko ikasle kopurua azken 10 urteotan bikoiztu egin da. Baina ezin daiteke esan igoera hau era berean bailarako hiru unibertsitate eskoletan ematen denik. Eskola Politeknikoak eta ETEOK gora egin duten bitartean, Majisteritzak behera egin zuen, nahiz eta azken urteotan gorantz egin.



Kotxe honen irabazlea dugu Antonio Unzalu

Kutxaren zozketa

Kutxak Aretxabaleta eta Eskoriatzako bezeroen artean automobil bat zozketatu zuen hil honen hasieran. Zozketaren irabazlea Antonio Unzalu Uriarte atxabalterra izan da.

Antoniok esan digunez kotxearen ordeztu du hartzearabaki du.

Berak ez du gidatzeko karneta eta bere hiru seme-alabek denek daukate automobila. Zorionak Antonio Unzalui, izan ere, Gabonak sasoi ona izaten da horrelako opariak jasotzeko eta etekina atara diezaiola irabazitako diruari.

Santo Tomas feria

Arrasateko Santamasetako ferian Atxabal-tako Areantza Etxebarri baserriko ganaduak izan ziren sarituak. Frisona arrazako ganaduak aur-

keztu zituzten ferian Areantza-Etxeberrikoek. Esan beharra dago aspaldiko partez aurten barriro hasi direla ganadu feria antolatzen Arrasaten.


**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
☎ 79 10 60



EGUZKIGRAF

**Aldizkariak
Inpresokak
Bulegoko materialak**

Aretxab.Industrialdea, F-0-4 • Tfnoa.: 791844
Faxa 792941



Olentzero herriko kaleetan zehar

Olentzero, Bizarzuri eta Erregeen bisita

Gabon egunean opariz beteta etorri ziztaigun Olentzero. Gure etxeetan sartu aurretik Atxabaltako kaleetan zehar ibili zen neska-mutikoak eta hain mutikoak ez direnak agurtzeko eta eskutitzak jasotzeko. Eguraldia kaxkarra izan genuen abenduaren 24ean, eurria, haizea, baina Olentzerorendako eguraldia ez zen oztopo izan eta urteroko bisitaldia egin zigun.

Gabon zahar egunean, barriz, beste pertsonaia ezagun batek zeharkatuko du gure herria, orduan Bizarzuriren txanda izango da, arratsaldeko 6'30ak aldera pasatuko da.

Bizarzurik ez digu

erregalurik ekarriko, baina Erregeentzako eskutitzak jasoko ditu, gainera gaba horretan agur esango diogu 93ari, 94ari ongietorria emateko.

Eta 94ean, urtarri-laren 5ean, hiru zaldiren bisita jasoko dugu, zaldietan hiru erregeak etorriko dira, Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

Hauk ere, ziur gaude, opariz josita etorriko direla. Arratsaldeko 6'30etan pasatuko dira.

Eta Errege Egunearekin bukaera ofiziala emango zaie aurtengo Gabonei, kontsumoa nagusi izan den egunei agur egin eta egunerokotasunera bueltatuko gara, kilo batzuk gehiagorekin gehienok.



Elkarri

Atxabaltako Elkarri gizarte mugimenduak, abenduaren 31 eta urtarri-laren 5ean, sinadurak batzeko mahaiak ipiniko ditu Durana kalean zehar.

Euskal Herriko egoera normalizatzeko, elkarriketa eta akordioan oinarritzen den Elkarri gizarte mugimenduak 94 urtea jarri du muga bezala euren helburuak lortzeko, Euskal Herri bake-tsua lortzeko hain zuzen ere.

Sinadura bilketaren kanpainiari Elkarri lehen-dabiziko lehentasuna ematen dio, pertsona zein erakunde sinadura biltzearekin, Elkarrikoek indar guztiak batu gura dituzte, gaur egungo egoerari irtenbide bat emateko. Beraz ez da ulertu behar sinadura biketa huts bezala, euren iritzi mobilizazio sozial, komunikazio eta elkarriketa eta akordioaren aldeko mezuaren hedatzailer bezala ulertu behar dugu esperientzia hau.

Esan dugunez, Elkarri lagundu gura dioten atxabaltar guztiak, Gabon-zahar eta errege bezperan, ipini behar diren mahaietan sinatuz izango dute aukera. Honez gain, laguntzeko beste bide bat Elkarri atera diuten bonoak erostea litzateke.

Abenduaren hasieran, azken zazpi urtean herriko alkate izan den Pedro Mendietak alkate izateari utzi zion. Alkate barria aukeratzeko pleno berezia egin zen abenduaren 13an. Pedro Mendietak hutsik utzitako jarlekua Aitor Antxiak beteko du, bera dugu Aretxabaletako alkate barria.



Aitor Antxia: "Pentsatutako proiektuekin jarraituko dugu"

• Alkate lana gogorra da. Orain arte Udaleko liberatu lanetan ibili zara, eta orain liberatu lana utzi eta alkate izango zara.

• Berez alkate izatea gogorra da, eta liberatu izateak ematen duen beste aukera bat ordu asko sartuaz gauza guztiak norberak kontrolatzea da. Orain liberatu barik gertatzean, ardura batzuk beste batzuegan utzi behar ditut, nahiz eta gero nik denak koordinatu behar.

• Zela ikusten duzu Pedro Mendietak egin dako lana?

• Pedrori buruz lehenengo esan beharra dago bere bizitza erdia pasatu duela instituzio publikoetan, herritarrendako lanean. 25 urte baino gehiago pasatu ditu lanean, bai Aretxabaletako Udalean alkate, zinegotzi, Foru Aldundian diputatu, Eusko Jaurlaritzan kon-

tseilari-orde eta horrek karisma handia ematen du. Berez, Pedro Mendietak lan egiteko izugarri-zko gaitasuna dauka, intelijentzia sobra, eta bere lanerako joera delegazio bitartez egiten duenez oso goxoa da.

• Ze aldaketa ikusiko da herri mailan Pedro Mendieta eta Aitor Antxiaren artean?

• Jokaeran behar bada, zorionez edo zoritxarrez ikusiko da desberdina garena. Ni gazteagoa naiz gauza batzuetarako eta beste batzuetarako berak beste pisu eta esperientzia bat dauka.

Bestela, herri mailan gu ez gabilta beti gauzak inprobisatzen. Udalean sartu ginenean, planak eginda geneuzkan hainbat arlo desberdinetan inbertsioak egiteko eta herria aurrera eramateko. Adibidez; azpiegi-

"Orain ardura handi dagoa daukat, lehen Pedroren babesaneukan, baina orain erantzukizun guztia niregan dago."

turetan saneamendurako plan bereziarekin jarraitu behar genuela garbi geneukan, langabeziarekin problemak zeudela eta hor dago lan teknikari bat. Gizarte laguntzaileen beste proiektu bat aurrera eramateko asmoa ere badugu, hor dago Kulturen egiten diren gauzak eta nik uste dutenez dela inprobisazio lana, lehendik pentsatutakoa baizik.

• Ze proiektu edo asmo barri daukazu?

• Gu Udal-batzen sartu ginenetik proiektu guztiak ondo pentsatuta geneuzkan, denboran eta dirutan. Poliki-poliki badoaz. Hirigintzan edo azpiegituretan hor dago saneamendu plana, lehenengo Loramendi egin zen, gero San Migel eta orain Andramari auzunea. Gizarte laguntzaile mobimendu horretan egunerokotasunean sartzten diren laguntzak eta beste proiektu bat ere badago. Beste arazo larri bat lango-beziarena da eta aurten le-


henengo aldiz udaletxean lan teknikari bat dago. Lan teknikariak sortu duen dinamika benetan txalogarria da. Jendea ohitu da informazio eske udaletxera etortzen, lan prestakuntzari buruzko hiru edo lau ikastaro ere egin dira.

• **Orain arte liberatu egon zara, iaz zu liberatu postu horretatik kentzeko HBk egindako proposamenak polemika sortu zuen, zela ikusten duzu hori denori orain?**

• Hori sortu zen eta garbi utzi behar da, arazo pertsonal bategatik izan zela edo arazo pertsonal horrek dinamika larri batera bultzatu gaitu eta azkenengo esplosioak hauxe eman du. Gero negoziazio batzuk egon dira eta udalean estabilitatea egon dadin derigorrezkoa da ni hemen liberatu ez egotea, hau da gertatu dena besterik ez dago. Gainera ni liberatu ez egoteak Udalarendako diru aurrerapena ekarriko du; eta krisi honen aurrean...

• **Orain dela egun batzuk PSE-EE-k proposamen bat egin zuen, EAJ-EA eta PSE-EE elkartzea eta HB kanpoan uztea. Zuk zela ikusten duzu hori denori?**

• Alderdi sozialistako kideak badaki, proposamena Udalean luzatu behar dela, idatziz eta dagoen bidetik, alkateari



eta Eusko Alkartasunako partaideei. Proposamena ez da ez ona eta ez txarra, pasatzen dena da bideak ez direla onenak guzti hau egiteko.

• **Zergatik orain Pierrugues, PSE-EEko zinegotzia, Gobernu batzordetik kanpo?**

• Hori berak prentsan ataratako komunikatuaren ondorioa izan zen. Guk garbi ikusten dugu horrelako gauzak atara behar diren lekuan atera behar direla eta horrela ez dira egin. Beraz, momentuz kanpoan dago, argitu behar duena da alkatetza honi laguntzeko dagoen ala ez eta gobernu proposamena noraino doan.

• **Zela baloratzen duzu Atxabaltako herria?**

• Orain arte egon diren alkateek, bai Errastik eta baita Pedrok ere izu-

garrizko gauzak egin dituzte eta ondo. Orduan horreik utzitako marka oso gatxa da apurtzea. Eta eurei esker azkenengo 14 urtean egindako lanak eta inbertitutako diruek eramaten dute Atxabalta ur kontuan, saneamendu arloan, gas arloan Gipuzkoa mailan aurrenekoetakoa izatera. Eta hori ez da nire lana, beste batzuek egindako lana da.

• **Atxabaltan ze eragin dauka krisiak?**

• Atxabaltan INEM etik ematen diguten datuen arabera 250-260 bitartean egongo da langabetuen kopurua, lan populazioaren % 10era ere ez da heltzen, datu hotzak ikusiz ez gaude txarto; baina langabetu bakoitza kontuan hartuz ezin dugu esan ondo gaudenik. Hor dago Industrialdeak sortu duen eragina eta hori txalogarria da eta inizatiba partikularrak ere badoaz aurrera; baina egunetik egunera ezin da aldatu. Espektatibak ere hor daude eta lan teknikariak sortu duen dinamika pozgarria da.

• **Zeintzuk dira alkate izatearen alde onak eta txarrak?**

• Txarrak denon ahotan egotea, jendeak Udalarekiko duen errezelo eta konfidantza falta eta buruan ditudan proiektu guztiak atera ezina diru faltagatik. Alde onak, barriz, Atxabaltaren alde lan egitea.

**"Udala k
itsaso barea-
ren antza har-
tu dezala es-
katzen diot
1994 urteari
eta baretasun
horretan 13 zi-
negotziok
Atxabaltaren
alde lan egiten
saiatu gaitze-
zela"**



Gaurkoan Blanka Pereangana jo dugu. Blanka lau seme-alabena eta kirol-etxe-ko garbitasunaren arduraduna izan arren, denbora ere topetan du eskulanak egiteko. Eskulanak dira Blankaren ofizio preziatuena, bere hobbya gauzak zela egiten diren ikastea da.

Blanka Perea: "Zapatak eta dirua ezik denetik egiten dut"

• **Noiz eta zela hasi zinen?**

• Txikitatik, hamalau urte neukanean josten hasi nintzen. Margotzen beranduago hasi nintzen, nire seme-alabak helduagoak egin zirenean. Nire etxean egon zen amerikar batek akriliko-kutxa bat erregalatu zidan eta hortik aurrera hasi nintzen.

• **Ze motatako gauzak egiten dituzu?**

• Zapatak eta dirua

ezik denetik egiten dudala uste dut. Puntoa, gantxiloa, bordadoak, zeramika, makramea, margoak, tapizak, oiha-lak... eskulan guztiak. Nire hobbya gauzak zela egiten diren ikastea da.

• **Zenbat denbora dedikatzen diozu?**

• Nire denbora libre guztia, lana bukatu ondoren beti daukat zer-bait egiteko. Kanean egoten ez dakien pertsona naiz.

• **Zure afizioak garestiak dira?**

• Tresnak oso garestiak dira, gauzak ondo egin gura badituzu material asko behar duzu.

• **Bukatuta daukazu lanekin zer egiten duzu?**

• Gehienak oparitu egiten ditut, baina gehien gustatzen zaidanak niretako edo nire seme-alabendako izaten dira.

• **Norbaitek eskatzen badizu gauza be-**

reziren bat, egiten diozu?

• Bai, baina nire ideien egiten dut, nire modura. Oso gatxa da bestela besteen ideiekin lan egitea.

• **Ikastarorik eman duzu?**

Makrame ikastaroa besterik ez dut eman. Gainera jendea ez dago ez ikasteko prest, ezta ordaintzeko ere.

• **Badago ezer berri ikastea gustatuko litzazukeena?**

• Modelatzen ikastea gustatuko litzaidake eta boliloak zela egiten diren ikasteko irrikatzen nago. Margotzen gutxi gora behera badakit, baina erretratoak egiten jakitea gustatuko litzaidake.

• **Nondik hartzen dituzu ideiak egiten dituzun gauzak egiteko?**

• Nire irudimen zorotik, irudimen handia daukat eta gainera oso ausarta naiz eta lan horiek egiteko beharrezkoa da horrelakoa izatea.

R. Velasco
J. Fuensanta

ANGELINES
Autozerbitzua

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

MATIKUA
TABERNA

Azatza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

AITZIBER
NIÑOS

• Umeentzako moda
• Amagaia

Lezama Merkatal Zentruan

Peña Zubi



laz parte hartu zuen talde bat

Peña Zubik IX. Gabonetako futbol txapelketa antolatu du. Abenduaren 23an hasi zen eta urtarrilaren 5an bukatu da, 110 neska-mutil mugitzen dabilen lehiaketa.

Duela bederatzi urte hasi ziren futbito txapelketak antolatzen. Helburua Atxabalta zein inguruko neska-mutilei, txiki txikitatik, kirola eta batez ere futbola egiteko aukera ematea izan da. Datorren urtean 10. urteurrena bete behar du Peña Zubi-k eta antolatzailleek esan digutenez ekintza bereziak antolatzeko asmoa daukate. Hori denori, datorren urteko kontua izango da, aurten, barriz, IX. Txapelketa dago jokoan.

Txapelketa horretan, Eskoriatza, Aramaio, Arrasate eta Atxabaltako jendea dabil. Neurketak goizez nahiz arratsaldez

jokatzen dabilta Iturrigorri frontoian, goizez 10'30, 11'15 eta 12etan, eta arratsaldean 3'30, eta 4'15 etan, horrela urtarrilaren 5era arte. Orduan irabazleak zein gairontzeko tokietan gertzen diren taldeak zeintzuk izango diren argituko da.

Sariei dagokienez trofeo talde guztiek izango dute. Horrez gain, sari bereziak egongo dira, atezain onenari, jokalar onenari eta baita ezberhar handiena izan duen jokalaritari ere (itxura denez urtero lesionatuak egoten dira eta aurten hauek ere saritzea erabaki dute). Txapelketan parte hartu duten taldeak kuadrila artekoak dira eta ez beste urte batzuetan egin den bezala aurrez selekzionatutakoak, honela egitean aukera handiagoa eman gura diete neska-mutil guztiei.

Almenekoak olinpiadetan

Urtero sasoi honetan egiten den moduan aurten ere, Almen ikastolako ikasleek Olinpiada marianistan parte hartuko dute. Oraingoan Cadiz aldera joan zaizkigu marianisten XVII. olinpiadan parte hartzera.

Abenduaren 27an hasi zuten Andaluzia alderako bidaia eta 31an goizeko 5etan, etxera bueltatuko dira. Guztira 108 jokalar, 20 arduradun (entrenatzaile eta delegatu), eta guraso zein laguntzaileak joan ziren, hiru autobus hain zuzen ere.

Almenek hiru ideia nagusitan oinarritzen du euren parte hartzea olinpiada horietan: batetik argi utzi gura dute Almen ikastolak marianista ikastetxeen familian jarraitzen duela, bestetik kirol zaletasuna bultzatzea dute helburu eta baita beste herrialdeekin harremanak sendotzea ere.

Almeneko ikasleak modalitate desberdinetan ibiliko dira besteak beste futboleko, saskibaloian, eskubaloian eta atletismoan. Jokalari gazte horiek egingakoaren barri hurrengo Aratzagazetan eskainiko dizuegu. Zorte on partaide guztiei.



Ziklo-krosa abenduaren 2an

Abenduaren 2an kadede zein jubenil mailako, Gipuzkoako ziklo-kros proba izango da Atxabaltan, Santutxu eta Arbizelaiko zelaietan hain zuzen ere. Lehen lasterketa goizeko 11etan ha-

siko da eta hori bukatu bezain laster jubenil mailakoari emango zaio hasiera. Antolatzailleek txirriindulari asko etortzea espero dute eta bertan Dorletako Ama taldekoak ere egongo dira.

Galartzako dorretxea


Galartzako Dorretxeo beritze lanak hasi aurretik bertan dihardute Aranzadi Elkarteko arkeologoek indusketa arkeologikoak egiteko asmoz. Ez dakigu eta ez dakite zer aurkituko duten edo eta ezer aurkituko duten ere; dena den atara daitekeen gauzak, garai eta pertsona konketu batzuen lekuko dira, eta horren inguruan argi pixkat emateko asmoz hona hemen hainbat datu.

Etxe hau, "Galartza" familiaren sortetxe izan zen, eta bere historia luzean zehar aldaketa asko ezagutu du. Etxe zahar honek, eraikitako garaian, gotorleku itxura izango zuen, beste Ahaide Nagusien dorretxeek zuten antzera. Baina, ezaguna den bezala, XV. mende erdialderuntz Gaztelako errege zen Juan II.ak, Ahaide Nagusien indarra ahultzeko, dorretxean mozketara agindu zuen, eta horrela, Galartzako dorretxearen itxura aldatu egin zen. Itxura aldatuta hau XV. mendeko 70 hamarkadan izan zen eta berreraikitze lana burutzeko "Galartza" leinuko partaide ziren Leintzarrek harria ekarri behar izan zuten, "Galartza"ko Jaunaren babesak, zerbitzu hori eskatzen zien eta. Ertaroko arkitekturen aztarna eta ezaugarriak nabariak dira dorretxean: leiho gotiko bikoitiak, eta gotikoak, zirikituak ("sateixak").

Garai hartan, Ertaroen, Galartzakoek urterik aurreratuena ezagutu zituzten. Bertako ugazabek, beste Ahaide Nagusiekin batera, Leintz Bailara menperatzen

zuten, nahiz eta Oñatiko Kontearen konkurrentzia jasan. (Gogora dezagun Leintz Bailaran - Aretxabaleta eta Eskoriatza - 1370 urtetik 1556. urtera Oñatiko jaurgu barnean zegoela). Botereari eusteko liskar eta auzi askotan sartuta egon ziren Galartzakoak, bai Oñatiko jauntxoaren, bai Leintzarren aurka. Lehen kasuan gogora ezazue Urrexola-garaiko baitaila. Auzi eta borroka hauek Ahaide Nagusien arteko Borrokan ulertu behar dira; Oñatiko kontea Ganboatarra zen eta Leintzkoak berri, Oñaztarrak. Gure bailaran, borroka hauek familien arteko ezkontzekin bukatu ziren; Galartzakoak, Gebara eta Garibai familiakoekin ezkondu zirenean. Bigarren kasua argitzeko, zera jakin behar dugu: Leintz Bailaran bizi ziren nekazari asko Galartza leinuaren partaide zirela eta, horrexegatik, betako jauntxoei zenbait zerbitzu eskaini behar zioten. Adibidez: 1.503. urtean Galartzako Jauna eta Zaloñako baseritarren arteko auzi baten konstantzia badugu. Hauen esanetan, egiten zizkioten zerbitzuak, guztiz borondatez eta premia gabekoak ziren. Hiru urte beranduago 1506. urtean auziak aurrera jotzen du eta Galartzako Juanak "Martin Saez de Galarza"k, Zaloñako bere etxeko nekazariak direla dio eta horrexegatik, Galartza familiari lotuta eta zenbait zerbitzu eskaintzera behartuta daudela.

Hona hemen urtero Galartzakoak eskatzen zituen zerbitzuak: anega t, erdi gari, anega térdi olo, 120 marabedi, zerri bat, oilo bat, aha-



di bat eta gainerako zerbitzu personalak (Galartza etxearen lur sailak landu eta erein, egurra batu, ...

Adibide honek aipatzen digunez, leintzarrek zuten bizimodua ez zen bat ere xamura, ezta erromantikoei kontatu diguten bezain goxoa, Ahaide Nagusien domeinua ez baitzen hain "naturala" edo berezkoa, indarkerian bai zetzan.

Aro Modernoan, Galartzako dorretxearen garrantzia behertatza doa, XVII. mendetik aurrera batipat. Aurreko mendean, XVI. mendean, Galartza familiakoek dorretxean zirauten, baina ordurako nagusien etorkizuna hirietan zegoen eta, hor non aurkituko ditugun Eskoriatzan eta Aretxabaletan, Galartzakoak

udal karguen jabe.

Hau dela eta, Galartzakoek XVII. mendean bukaeran, luzaroan izan zen etxebizitza utzi omen zuten eta noizean behin etortzen ziren Galartzara. 1.676. urtetik aurrera ez dugu "Galartza"rik aurkituko dorretxean; azkena D. Sancho antonio de Galarza izan zen.

Gero, Galartzako dorretxea baserri bihurtu zen, bere jaunzagurriak zeharo galdurik. Guk horrela ezagutu dugu, handi, harro eta bakarti. Hainbeste gora beheren testigu zuzena eta azkenean bere ertaroko jatorriari eutsiz, beste ertaroko etxe askoren bukaera berdina jasan du: sua eta garrara.

**A. Antxia
I. Urreta**

Irabazleak nagusi



J.J. Aretxaga

Mundu txarri hontan dana galdu eta irabazi bihurtu dugu. Edozer gauzetan galtzaileak eta irabazleak ataraten ditugu. Eta emuten du Gabon inguruetan lehiaketan eta holakoak ugaritu egiten direla. Gure herrian ere irabazle mordoak izan da egun honeitan. Arrasateko AEDko ipuin lehiaketaren irabazlea **Mireia Olabe** atxabalarrak izan da, adibidez. Edo Santamasetako ferian Arientza auzoko Etxebarri baserrikoak, **Abasolotarrak** laburrago esateko, 3 sari irabazi zituzten ganadu sailean. Almenekoek egin duten Olimpiadetako gabon-otzarak ere badu, klaro, bere irabazlea: **Maidar Elkoro**. Honezkero gas-tatu ditu otzarako txanpain eta turroiok.

Beste leku askotan moduan, bertsolaritzan ere galtzaileak eta irabazleak topetako txapelketak egiten dute, eta horren inguruan ere sortu dira beste forma batzuk irabazleak topetako: bertso kinielak. Atxabaltan ere bai, klaro. Arlutz tabernan egindako kinielan, Bertsolari Txapelke-

tako lehenengo bost postuak asmatu behar ziren eta **Sabino Larrañagak** atara ditu bostak. Har ba, beste irabazle bat. Irabazle izan ez dena baina gutxi falta izan zaiona **Unai Loidi** izan da. ETBko Gezurra Nagusi programara joan, bi lehiakideak atzera bota eta azken momentuan miloi t'erdiko sariak eskuetatik aldegin zion. Sariak banatuaz pasatu zen abenduaren 24ean, arratsaldeko 7ak aldera, **Pepelu Gomez Zabala**, pipa hortzetan zuela...

Baina, zorionez dena ez da galdu-irabazi kontua. Beste barririk ere iristen da. Arrasateko **ATB** telebista gure herrian ikusteko antena ifini zutenetik edeerto ikusten da geurean. Albiste ona da hori. Kiroletxean sauna barria zabaltzea ere albiste ona da. Iñusente egunean inauguratu zen sauna barri hori. **Bixente Etxeandiak** eta **Xabier Urzelaik**, herrian sauna gehien erabiltzen duten biek, gonbidapen berezia izan zuten inauguraketara joateko. **Beinkekoek**, eskualdeko beste euskararen aldeko elkartekin batera (Debagunen bildurik daudenak) egutegi bat atara dute. Egutegi hori lortu gura duenak Beineko lokaletik pasatu eta debalde lortuko du. **Almeneko** kirolariak Cadiz-era joan dira aurtien Olimpiada Maria-nista jokatzerara.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

1 ZAPATUA

- Arratsaldeko 4,30etan "SOMOS LOS MEJORES" eta 7retan "UN DIA DE FURIA" **filmeak**.

2 DOMEKA

- Futbol partidua: U.D.A. - Zestoa K. E.

- Arratsaldeko 4,30retan "SOMOS LOS MEJORES" eta 7retan "ALERTA MAXIMA" **filmeak**.

3 ASTELEHENA

- Bilboko **P.I.N. era bidaia**, Ortzadar taldeak antolatuta. Arratsaldeko 2,30etan izango da urteera herriko plazan eta 9,30etan helduko dira.

5 EGUAZTENA

- Arratsaldeko

6,30etan **Errege Kabalgata**.

6 ASTELEHENA

- Arratsaldeko 4,30etan eta 7retan "BAMBI" **filmea**.

8 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman, "LA CHICA DEL GANSTER" **filmea**.

9 DOMEKA

- Zaraia zineman arratsaldeko 4,30retan "ETERNAMENTE JOVEN" eta 7retan "LA CHICA DEL GANSTER".



ARETXAZOKA

Lana

- Edozein motatako lanak garbira pasatzen ditut ordenagailuan. Interesatuak deitu 79 77 59 telefono zenbakira eta Fernandez galdetu.

- Irakasle tituluak klase partikularrak ematen ditu O.H.O.ko 1go mailatik 8. mailara arte. Tfnoa: 77 10 72.

Etxebizitza

- Etxe bat alokatzen da Atxabaltan, interesatuak deitu 792919 telefonora.

- Etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak 79 46 25 zenbakira deitu.

- Pisu bat alokatuko nuke. Jantzi gabe hobe. Interesatuak Josuz galdetu 71 47 10 zenbakian.

Salerosketak

- Kotxe zaharra botatzera zoazela ! IHES Ekimena kotxe baten beharrean dago, beraz... 79 26 99 an aurkituko gaituzu.

- Renault 4 f 6 markako furgoneta bat saltzen da. Interesatuak 79 62 69 telefonora deitu.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK


BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA


 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
 TABERNA
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


HAIZEA AKEITEGIA
 Mitarte Kalea, Z/G
 Tfnoa: 79 85 57


T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA



JAUREGI OKINDEGIA (Panaderia)
 Otorara, 10
 ☎ 79 57 47

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
 BITXIEN DISEINUA
 Otorara Kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57
 ARETXABALETA

DORLETA TABERNA
 Loramendi, 10
 ☎ 79 94 15


MAPFRE
 Aseguroak
Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria
 Errekabarren, 3
 Tfnoa: 77 11 76
 20550 ARETXABALETA


 **MASAILARIAK**
MASAIK ZARAIA
 MASAIK eta
 OSTEOPATIA
 Loramendi 13 - 1-A
 Tfnoa: 79 71 55

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA

 Aralar Kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

NERIAN
 Loradenda
 Otorara, 14 beheha
 Tfnoa: 79 70 66



Zure hipoteka zaharrari
ordezkoa heldu zaio.

Hipoteka Berria %9,75ean*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA